

Uxue Urien Razkin

A maila • 1 aipamena

Iepe! Uxue naiz, hamasei urteko beasaindarra.

Nire lehen ikasketak Murumendin burutu nituen eta azken urte hauetan Beasaingo Institutoan nabil. Orduak lagunekin berriketan pasatzea izugarri gustatzen zait eta mendian zehar bada, askoz hobe. Musika entzutea ere gogoko dut, euskal musika gehienbat.

Bertso hau idazteko esperientzia pertsonal batetik abiatu nintzen eta tamalez, ziur naiz askori ere ez zaizuela arrotz egingo.

Hurrenarte

Doinua: Astoa ikusi nuen



ETXERANTZA BIDEAN

1

Etixerantza bidean
ordu txikietan
giro hotza nabari
gure kaleetan
Bide bazterrak hutsik
ilargi argitan
banoa murgildurik
pentsamenduetan.

2

Gizon hots bat entzun dut
nonbait urrunean
Ea ez dugun topo
egiten bidean
Erritmoa bizkortuz
noan bitartean
Gorputza somatzen dut
ikara betean.

BERTSOAK

3

Bidea gurutzatu
dut beste aldera
etxeko giltzak irmo
helduaz batera
Nahiz eta urrunean
ikusi sarrera
oraindik bihotza dut
ehuneko ehunera.

4

Atzeko gizon hura
hurbildu ez da ba
orain bai nire senak
egin du eztanda
Malkoa masailean
umel begirada
ni korrika hasiko
naiz badaezpada.

5

Arnasestuka ate
aurrean negarrez
"iritsi naiz etxera"
esan dut adorez
Birikak behingoz bete
ditut berriz airez
hurrengoan ez nator
ni bakarrik gauez.

6

Egia esan beti
izan da horrela
a zer kasualitate
gizon ez garela
Errespeta gaitzazu
pertsona bezela
eta lasai etxera
itzul gaitzezela.